

Dabid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Hizkuntzari begiratzeko moduez

Gure burua hizkuntzan –euskaran, demagun– kokatu, eta kanpora edo barrura begira jar gaitezke. Kanpora begira jarriz gero, munduko gainerako hizkuntzak ikusiko ditugu: hizkuntza aniztasuna, munduko hizkuntzen aberastasuna, hizkuntzen mapa koloretsua. Eta barrura begira jarriz gero, gramatikari edo sintaxiari begira esaterako, hara! Eta orduan ere munduko gainerako hizkuntza guztiak ikusiko ditugu, “azalean” dituzten desberdintasunak gorabehera, bakartzat jo genezakeen egitura eta printzipio unibertsalak ikusiko ditugulako. Euskararen barru-barruko egitura edo hezurdu-
ra ikusten dugun tokian, euskaldun bakoitzaren hizkuntza-gaitasuna ikusten dugun tokian, munduko gainerako hizkuntzen hezurdu-
ra eta munduko gainerako hizkuntzen gaitasuna ikus genitzake.

Kanpora begiratzea ariketa ederra da, eta ezberdintasuna, aniztasuna, koloreak... erakargarriak dira oso. Ederra da gizaldietan barna hainbeste hitzunik eta hitzun-taldek gauzak esateko, sentimenduak adierazteko, ideiak ordenatzeko, emozioak partekatzeko... eraiki dituzten molde ezberdin guztiak dastatzea edo usaintzea. Baina barrura begiratzea ere ederra da, eta kitzikagarria da ustez sinplea den esaldi baten atzean



KARIOS CORBELLA

dagoen konplexutasuna izugarria eta miresgarria sumatzea edo ulertzen saiatzea. Eta pertsonak hainbeste hizkuntza eta hainbeste-ko aberastasuna sortu duela ikustea txundigarria den bezalaxe, zeharo txundigarria ere da hizkuntza bezain sistema konplexua sortu izana eta hura gainera hain modu natural eta errazean erabiltzea. Edo liluragarria da burmuinaren atal jakinek edo FOXP2 bezalako geneek hizkuntza ekoizpenarekin izan lezaketen loturaren berri izatea.

Sarritan, hizkuntzari begiratzeko bi modu horiek, kontrajarriak baleude bezala agertu zaizkigu. Eta, nago, bigarren modua da, barrura begiratzeko hori alegia, hoztasunaren eta usain akademiko-zientifiko hutsaren marka gehien bereganatu duena, nahiz eta kanpora begirako hori ere deskribaketa eta estatistika soilean gelditu izan den askotan.

Baina nik esanen nuke bi ikuspegi horiek, bakoitzak izan litzakeen ñabardura, zehaztapen edo berezitasunak gorabehera, ez direla batere kontrajarriak. Are gehiago, esanen nuke ez dela batere zaila norbera bietan kokatzea, eta hizkuntzari bi talaia horietatik begiratzeko; eta litekeena da, gainera, biak ere guregan lilura, emozio-une edo txinparta txikiak nahiz handiak eragiteko eta sortzeko gai izatea. ■

« Euskaldun bakoitzaren hizkuntza-gaitasuna ikusten dugun tokian, munduko gainerako hizkuntzen hezurdu-
ra eta munduko gainerako hizkuntzen gaitasuna ikus genitzake »

TXANDAN

Joseba Barandiaran

Hakuna matata



Periferiatik zer ikasi asko dugu. Munduko tik, nahiz gure Euskal Herrikotik. Jeltzaleak Lakuatik kanpora-
tuak izatearena, harriduraz eta kezkaz bizi du hainbat “autonomierkidegotarrek”. Are, haserrez ere bai. Lizartzan itsu eta, orain, koplak? Mexikon badakite jakin hamarkadatan PRI bat sufritzea zer den. Argentinan ere, guztiak dira peronista; politikoki horrek zer esangura duen azaltzen arras zaila izan arren. Beraz, onar dezagun: jesarlekuak zure ipurdiaren itxura hartu badu, aldaketa ez da txarra. PSNk ez zuen hori Iruñean ikusi ahal

izan baina. Zergatik? Zein da PPSOEren azken 30 urteotako “meritu” nagusia? Ez ote da euskal labeldun *cosa nostraren* “helburu lehenetsia” izatea?

Basagoitik esaten dituen lotsagabekeriak berdin onartuko genizkioke, bizkarzain itzal izanagatik bihar zerraldo egoteko aukerarik ez balu? Nork bihurtu ditu PPSOEkoak askatasunaren aldeko gudari? Eta gogoratu “gehiengo abertzalea” aipatzean, jeltzaleak direla hor gehiengo; mitxelin, Azkuna eta guzti. Sozialisten euskalzaletasuna Lakuako eltzeko sutan ikuskizun. Hakuna matata. ■